# 4. GAIA
# ISABEL II.aren GARAITIK IRAULTZEN GARAIRA


1. EZAUGARRI NAGUSIAK
2. ISABEL II.aren ERREGEALDIA (1844-1854)

    2.1. Sarrera
    2.2. Hamarkada moderatua

        2.2.1. Bilakaera politikoa
        2.2.2. Moderatuen ekintzak

            2.2.2.1. Narvaez-en gobernuan
            2.2.2.2. Bravo Murillo-ren gobernuan

    2.3. Biurteko progresista (1854-1856)

        2.3.1. Mugimendu iraultzaileak
        2.3.2. Progresisten ekintzak

            2.3.2.1. Sarrera
            2.3.2.2. Legedian eta administrazioan
            2.3.2.3. Ekonomian eta finantzan

    2.4. Moderantismoaren berrezarkuntza (1856-1868)

3. SEIURTEKO DEMOKRATIKOA

    3.1. Sarrera
    3.2. 1868ko iraultza
    3.3. Garai iraultzaileko gatazkak
    3.4. Amadeo Savoiakoaren erregealdia (1871-1873)
    3.5. Lehenengo Errepublika (1873-1874)

        3.5.1. Errepublika federala
        3.5.2. Errepublika unitarioa

4. HIRUGARREN GERRA KARLISTA (1872-1876)

    4.1. Gerraren arrazoiak
    4.2. Gerraren garapena

        4.2.1. Gerraren hasiera
        4.2.2. Karlisten nagusitasuna
        4.2.3. Gerraren amaiera

## 1. EZAUGARRI NAGUSIAK

* Isabel II.aren erregealdian (1843-1868) erregimen liberalaren sistema konstituzional berezia finkatu zen:

- Biurteko progresistan izan ezik —progresistek askatasunak hedatzeko eta garapen kapitalista sustatzeko aprobetxatu zuten—, moderatuek izan zuten boterea.
- Moderatuek Hego Euskal Herriko foru erregimena errespetatu zuten.

* Seiurteko demokratikoan (1868-1874):

- Progresistek, demokratek eta errepublikarrek aldaketa handiagoak lortzeko bultzatutako iraultza demokratikoak garaipena lortu zuen.
- I. Errepublika ezarri zenen (1873-1874) Espainiaren historiak goitik behera aldatzeko oinarriak ezartzeko zorian egon ziren; baina, proiektuak porrot egin zuen ondorengo arrazoiak zirela eta besteak beste: antiklerikalismoa, alderdien arteko zatiketa, kantonalismoaren[1] hedapena eta gizarte klase dirudunek desordenari zioten beldurra. Hala, Borbondarren monarkia berrezarri zen.

* Hego Euskal Herrian:

- Hirugarren Gerra Karlista izan zen aldaketa iraultzaileei emandako erantzuna.
- Gerra amaitzean, estatuaren barnean integratzeko modu berri bat sortu zen.

## 2. ISABEL II.aren ERREGEALDIA (1843-1868)

### 2.1. SARRERA

* 1843ko azaroan, Espartero erbesteratu ondoren:

- Isabel II.ari adin nagusitasuna eman zioten, hamahiru urte baino ez zituen arren.
- Horren erregealdian, izaera zentralista zuen estatu liberala finkatu zen behin betiko.

* Alderdi liberal moderatuak izan zuen boterea ia erregealdi osoan, 1854tik 1856ra izan ezik, urte horietan progresistak egon baitziren gobernuan.
* Hego Euskal Herrian foru sistema erregimen konstituzional berrira egokitzeko negoziazioek aurrera jarraitu zuten.

---

[1] Estatu bat kantoi federaletan banatzeko helburua duen sistema politikoa.



## 2.2. HAMARKADA MODERATUA (1844-1854)

### 2.2.1. Bilakaera politikoa

* Isabel II.aren erregealdiaren lehen hamar urteetan Ramon Maria Narvaez jeneral moderatua izan zen pertsonaia nagusia, 1844ko maiatzean boterea eskuratu ondoren. Hainbat faktore zirela eta, progresistei ezinezkoa izan zitzaien boterea eskuratzea:

- Moderatuen zentralismo gogorra.
- Kontserbadorismo politikoa.
- Estatuaren baliabideen kontrola.
- Hauteskundeetako iruzurrak.
- Errepresio gogorra.

* Moderatuek boterea berreskuratzeak izan zuen eragina Hego Euskal Herrian:

- 1841 baino lehenago zegoen egoerara itzultzea suposatu zuen. → FORUAK ITZULTZEA
- Pedro Egañak egindako kudeaketei esker, 1844ko uztailaren 4an bikoiztasun instituzionala berrezarri zen:

  - Foru diputazioak eta Batzar Nagusiak berrezarri ziren.
  - Lehenago izandako eskumen administratibo eta ekonomikoak berreskuratu ziren.
  - Bina izan zen aldatu ez zen elementurik:

    - Aduanak, kostaldean eta mugetan.
    - Justizian egindako aldaketak.
    - Foru baimenaren deuseztapena.

- 1845ko Konstituzioak hautesle kopurua murriztu zuen Hego Euskal Herrian eta horrek foruzale aberatsei egin zien mesede.

* Hala ere, erregimen moderatuak izan zuen oposiziorik, eta aurka agertu ziren taldeek borroka armatua erabili zuten maiz:

- Moderatuen kontrakoak errepublikarrak, hainbat progresista eta karlistak ziren.
- 1848an hainbat altxamendu izan zen —dena den, urte hartan Europak bizi izan zuen bolada iraultzailetik eragin txikia jaso zen Espainian—:

  - Madrilen, muturreko progresisten hainbat altxamendu gertatu zen.
  - Katalunian eta Levanten errepublikarrak altxatu ziren.
  - Pirinioetan karlistak izan ziren protagonistak.

Altxamendu horiek isilarazi eta ordena berrezartzeko, Narvaezek neurri gogorrak hartu zituen.

- 1849an progresisten sektore ezkertiarrenak Alderdi Demokrata fundatu zuen errepublikar eta sozialistekin. Alderdi horrek besteak beste ondorengo eskakizunak zituen:




- Erregimenaren erabateko aldaketa.
- Gizakien eskubideen deklarazio unibertsaleko printzipioak betetzea, hala nola, biltzeko eta elkartzeko askatasuna.
- Sufragio unibertsala.

* 1848tik aurrera kontserbadorismoa areagotu egin zen; 1852an Juan Bravo Murillok koroari eskumen gehiago eman eta gorteen boterea baliogabetzen zuen konstituzio proiektu atzerakoia planteatu zuen; ondorioz, progresistak, demokratak eta baita moderatuak berak ere aurka agertu ziren.

2.2.2. Moderatuen ekintzak

2.2.2.1. Narvaezen gobernuan

* Moderatuek kontrola eta ordena lortzeko zuten interesa bi bidetatik gauzatu zen:

- Prentsaren zentsura.
- Guardia Zibilaren sorrera, 1844an:
    - Jada desagertua zen Milizia Nazionala —progresistek kontrolatzen zutena— ordezkatu zen.
    - Nekazaritza guneetan eta bideetan jabetza eta ordena bermatzea zuen helburu.

* 1845ean, moderatuek hainbat lege erreforma bultzatu zuten:

- Urtarrilaren 8an udalen lege berri bat onartu zuten:
    - Izaera zentralista gogorra zuen.
    - Tokiko agintaritza gobernuko ordezkarien menpe jarri zuen.
    - Hego Euskal Herrian ere aplikatu zen, foruzaleek protesta gogorrak burutu zituzten arren.

- 1845eko Konstituzio moderatua. Hona printzipio nagusienak:
    - Guztien artean banatutako subiranotasuna.
    - Botereen arteko lankidetza.
    - Bi ganbarako gorteak:
        - Senatua. Bere ordezkariek bizi arteko kargua zuten eta erregeak izendatzen zituen.
        - Kongresua. Bertako ordezkariak 1846ko hauteskunde legearen arabera aukeratuko zituzten, biztanleriaren % 1era mugatutako sufragio zentsitarioz —hiri eta landako erdi eta behe mailako klaseak at geratzen ziren—.



- Ondasunei dagokienez, Alejandro Mon-ek erreforma sakona egin zuen:
    - Zerga-sistema arrazionalizatu eta liberalizatu egin zuen.
    - Handik aurrera, estatuaren hazienda bi sarrera iturritan oinarrituko zen:
        - Hiriko ondasun higiezinen gaineko zerga zuzenak.
        - Nekazaritza lurren etekinak.

- Pidal ministroak hezkuntza erreformari ekin zion:
    - Hezkuntzaren zentralizazioa hasi zuen.
    - Bigarren hezkuntza unibertsitateen eta probintzi agintaritzen kontroipean jarri zituen.

2.2.2.2. Bravo Murilloren gobernuan

* 1851n Vatikanorekin konkordatua sinatu zen:

- Vatikanok desamortizazioa onartu zuen.
- Dena den, horren truke:
    - Hezkuntzaren kontrola berreskuratu zuen.
    - Estatuaren esku utzi zuen gurtza eta kleroa mantentzea.

* Makineria burokratiko modernoa osatu zen. Hori medio, funtzionarioek:
→ todo el papeleo de las leyes, reformas...

Las opociones para su funcionario

- Oposaketa bidez eskuratuko zuten euren lanpostua.
- Ez zituzten gobernu aldaketa bakoitzarekin batera aldatuko.

2.3. BIURTEKO PROGRESISTA (1854-1856)

2.3.1. Mugimendu iraultzaileak

* 1852. urtearen bukaeran, Bravo Murillok dimititu ondoren, hainbat gobernu ezegonkor izan zen, progresista, demokrata, errepublikar eta zenbait sektore moderatuen ezinegona areagotuz.

* 1854ko ekainean, Leopoldo O'Donnell jeneralak —irekitasunaren aldeko moderatua zen— altxamendua burutu zuen Vicalvaro-n, *Vicalvarada*.

- Altxamendu militarraren ondoren, mugimendu iraultzailea progresista, demokrata eta errepublikarrengana hedatu zen.
- Madril, Bartzelona, Sevilla eta Bilboko hirietan gertatutako altxamendu erradikalen aurrean, erreginak gobernuaren zuzendaritza Espartero progresistaren eskuetan utzi behar izan zuen.

Zentsitarioa = mugatua

* Esparteroren gobernua:

- Progresistek eta joera irekiko moderatu batzuek —O'Donnell, adib. — osatu zuten.

- Ezarritako erregimena aldatzeari ekin zion:

  - Inprimatzeko askatasuna mugatzen zuten dekretuak baliogabetu zituen.
  - 1837ko hauteskunde sistema berrezarri zuen. → KONSTITUZIOA ere

- Ezegonkortasun politikoa etengabea izan zen, sektore politiko asko ez baitzeuden ados progresistek egindako aldaketekin:

  - Alderdi atzerakoienak, karlistak, altxamenduak egin zituen 1855-56an.
  - Alderdi iraultzaileek gizarte gatazkak bultzatu zituzten lehen aldiz, langile kataluniarren lehen greben bitartez. → SOZIALISTEK, DEMOKRATAK

* 1856ko uztailean, Esparterok dimititu ondoren, erreginak gobernua osatzeko agindua eman zion O'Donnelli. O'Donnellen gobernuan moderatuek eta progresista kontserbadoreenek hartu zuten parte eta horrek moderantismo politikorantz zuzendu zuen bidea eta Isabel II.aren erregealdiaren azken faseari (moderantismoaren berrezarkuntza) eman zion hasiera.

* Hego Euskal Herrian: liberal progresistak zirenak
  → Gehieno

- Burgesiak jarrera liberal kontserbadoreagoak hartu zituen, jarduera ekonomikoa garatu ahal izateko beharrezko ordena bermatzeko.
- Une horretan foruzale aberatsak tesi liberal moderatuetara hurbildu ziren:

  - Foruen aldekoak zirelako.
  - Egonkortasun handiko sistema sortu zutelako.

## 2.3.2. Progresisten ekintzak

### 2.3.2.1. Sarrera

* Progresistek boterean eman zituzten bi urteetan, legedia, administrazioa, ekonomia eta finantzetan ekintza garrantzitsuak burutzen saiatu ziren; guztiak aplikatzeko denbora izan ez zuten arren.

### 2.3.2.2. Legedian eta administrazioan

* 1856ko *non nata* Konstituzioa sortu zuten. Honakoak ziren horren printzipioak:

  - Subiranotasun nazionala.
  - Kongresu eta senatuaren hautazko izaera eta botere berbera.
  - Norbanakoen eskubideen arautzea.
  - Milizia nazionalaren berrezarpena.



- Probintzietako eta udaletako gobernuen hauteskunde bidezko aukeraketa, gorteetan aplikatutako sistema zentsitarioa aplikatuz.

* Biurtekoaren amaieran, 1856ko uztailean, udalen lege berri bat idatzi zen:

  - Tokiko instituzioek agintea berreskuratu zuten.
  - Baina 1868 arte ez zen indarrean jarri.

### 2.3.2.3. Ekonomian eta finantzan

* Biurtekoan egindako ekintzarik garrantzitsuenak izan ziren. Hartu ziren neurri librekanbista guztiek bi helburu izan zituzten:

  - Estatuko haziendaren diru sarrerak areagotu.
  - Herriaren industri garapena eta azpiegiturak sustatu.

* Pascual Madoz hazienda ministroak desamortizazio lege bat eman zuen:

  - Jabetza zibiletan izan zuen eragina, batez ere Estatuaren eta udalerrien ondasunetan.
  - Nekazariek herri mendien erabilera komuna galdu zuten.
  - Hego Euskal Herrian ez zuen eragin handirik izan XIX. mendearen hasieratik ari baitziren herri lurrak saltzen.

* Sozietate anonimoak (→ Akzioak dituzten enpresak) eta jaulkipen bankuak liberalizatzeko zenbait lege jarri zen indarrean, finantza sistemaren hedapena ahalbideratu zutenak.

* 1855 eta 1856ko legeei esker, progresistek trenbidearen eraikuntza bultzatu zuten.

## 2.4. MODERANTISMOAREN BERREZARKUNTZA (1856-1868)

* O'Donnellen gobernuak:

  - 1845eko Konstituzioa berreskuratu zuen.
  - Milizia Nazionala desegin zuen berriro.
  - Hamarkada moderatuko legedia berrezarri zuen.

* 1856 eta 1858 artean, O'Donnell eta Narvaez txandakatuz joan ziren boterean.

* 1858 eta 1863 artean gobernuak egonkortasun handiena lortu zuen, *Union Liberal* alderdiaren zuzendaritzapean:

  - Alderdi zentrista zen. moderatu progresistak eta progresista moderatuak bildu ziren.
  - Moderantismoaren sektore progresistenak eta progresismoaren sektore kontserbadoreenak bildu zituen.

zentrista ≠ zentralista

* 1863tik aurrera, moderatuek hartu zuten berriro ere boterea, baina, aldi berean, ezegonkortasun politikoa itzuli zen, alderdien zatiketaren ondorioz. Garai hartan:

- Hauteskundeetako iruzurren ondorioz, progresistak eta demokratak joko politikotik at geratu ziren. Hori zela eta bi taldeek jarrerak muturreraino eraman zituzten eta bide iraultzailea aukeratu zuten erreforma handiagoak lortzeko:

  - Progresistak demokratengana hurbildu ziren.
  - Demokratak monarkia edo errepublika ezartzearen egokitasuna eztabaidatzeari ekin zioten.

- Militarren ospea —Juan Prim jenerala adibidez, progresisten irudi nagusia izan zena— geroz eta handiagoa bihurtzen ari zen, Espainiak nazioartean izandako parte hartzeei esker.

- 1866. urtean Europan gertatu zen krisi ekonomikoak —finantzetan, industrian, trenbidean eta nekazaritzan eragin zuen— porrotak eta hornigaien krisiak ekarri zituen; horrek guztiak:

  - Ordu arteko egoera politiko eta sozial gatazkatsua areagotu zuen.
  - Narvaez eta Gonzalez Bravoren azken gobernu moderatuek oso gogor zapaldu zituzten gobernuaren kontra egindako altxamenduak. Politika autoritario horren ondorioz:

    - Gizarteko behe mailak moderatuen sistema politikoaren eta Isabel II.aren monarkiaren aurka jarri ziren.
    - Progresistak, demokratak, errepublikarrak eta *Union Liberal* alderdia Prim jeneralaren agindupean elkartu ziren Isabel II.aren erregimena deuseztatzeko.

* Hego Euskal Herrian:

- Foruzaletasuna liberal moderatuen eta progresisten artean hedatu zen.
- Burges zein nekazaritza munduko aberatsentzat onuragarriak ziren autogobernua eta foruetatik ondorioztatutako zerga berezitasunak.

## 3. SEIURTEKO DEMOKRATIKOA (1868-1874)

### 3.1. SARRERA

* 1868ko iraultzarekin amaitu zen Isabel IIaren erregealdia eta liberalismo demokratikoa ezarri zen.

* Hala ere eredu demokratiko berriak izan zuen finkatzeko arazorik:

- Alderdi politikoen zatikatzeak.
- Karlista eta kantonalisten arteko oposizioa.
- Kolonien arazoak.



* Iraultzaileek foru erregimena errespetatu zuten, baina arazoa bi jarrerek aurrez aurre topo egitean sortu zen:

- Iraultzaileen antiklerikalismoa.
- Hego Euskal Herrian zegoen erlijioaren aldeko jarrera.

### 3.2. 1868ko IRAULTZA

* 1868ko irailean iraultza gertatu zen *La Gloriosa* izenekoa:

- Cadizen itsas armadako Topete almiranteak zuzendutako altxamenduarekin hasi zen.
- Horri, progresistak, demokratak, errepublikarrak, unionistak eta zenbait jeneral (Prim eta Francisco Serrano) lotu zitzaizkion.
- Progresistek eta demokratek:

  - Batzorde iraultzaileak antolatu zituzten hirietan.
  - Eskakizun batzuek egin zituzten:

    - Gizonezkoen sufragio unibertsala.
    - Erabateko eskubide eta askatasunak inprimatzeko, elkartzeko, gurtzeko...
    - Politika eta administrazioaren deszentralizazioa.

* Behin behineko gobernua Serrano unionistak zuzendu zuen, Prim izan zuen gerra ministro eta errepublikarrak kanpoan geratu ziren:

* Lehenengo hauteskundeak:

- Gizonezkoen sufragio unibertsalaren bidez egin ziren.
- Progresistek unionistek eta monarkiaren aldeko demokraten sektoreek irabazi zuten.
- Hego Euskal Herrian kontserbadorismoaren aldeko joera areagotu egin zen hautesle karlistek gehiengoa lortu zutenean hauteskundeetan. Garai horretan karlistak printzipio iraultzaileen aurka agertu ziren eta, bereziki, iraultzaileen antiklerikalismoaren aurka eta batasun erlijiosoaren alde.

* Eratu zen gobernu berriak 1869ko Konstituzioa eman zuen:

- Printzipio hauek zituen:

  - Subiranotasun nazionala.
  - Botereen zatiketa.
  - Biltzeko eta elkartzeko askatasuna.
  - Gizonen sufragio unibertsala.

- Erregearen botere legegilea mugaturik uzten zuen, eta eskumen gutxiago eskaintzen zizkion.

- Gorteetako bi ganbarei zegokienez:

  - Sufragio unibertsalez aukeratuko ziren aurrerantzean.
  - Gobernuari betoa ezartzeko eskubidea eman zitzaien.

### 3.3. GARAI IRAULTZAILEKO GATAZKAK

* *La Gloriosa* iraultza bultzatu zuen egonezina ez zen baretu gobernu iraultzaileek erreformak planteatu zituztenean.

* Errepublikarrak:

- Boteretik kanpo geratu zirenez gero, altxamenduak burutu zituzten.
- Federalismoa garatu ahal izateko, monarkiaren ordez errepublika ezartzea eskatzen zuten.
- Bandera errepublikarraren atzean ondorengoak altxatu ziren:
  - Espainiako hegoaldeko jornalariak, lurren banaketa eskatzeko.
  - Kataluniako langileak, gizarte eta laneneko hobekuntzak eskatzeko.
- Hego Euskal Herriko errepublikarrek hitzarmen federal bat sinatu zuten Eibarren eta horren bidez, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroak Espainiako mugimendu federalarekin bat egin zuten.

* Kuba eta Puerto Ricoko altxamendu independentista:

- Carlos Manuel de Cespedes kreolak Espainiaren kontrako mugimendu bat burutu zuen:
  - Kubaren askatasuna eta errepublikaren askatasuna eskatzen zuen.
  - Esklabo beltzak eta lurjabe txikiak alde zituen.
- Espainiako gobernuak tropa ugari bidali behar izan zituen altxamendua zapaltzeko, baina 1878a arte ezin izan zuen menderatu.

* Karlistak:

- Iraultzaileek boterea eskuratu zutenean, Karlistek erregimen liberalaren aurkako eraso armatua gogortu zuten.
- Hego Euskal Herrian, liberal moderatu kontserbadore asko hurbildu zen karlistengana:
  - Une horretan, tradizioaren foruen eta katolizismoaren defentsa areagotu egin zen iraultzaileen antiklerikalismoaren aurrean.
  - Karlistentzat liberalismoa eta katolizismoa bateraezinak ziren eta, horren ondorioz, beharrezkoa zen monarkia tradizionala berrezartzea.



* Gobernu iraultzaileen arazo larrienetariko bat Espainiako tronua betetzeko errege bat lortzea zen. Hainbat eztabaidaren ondoren Amadeo Savoiakoa aukeratu zuten, Victor Manuel II.a Italiako erregearen semea.

### 3.4. AMADEO SAVOIAKOAREN ERREGEALDIA (1871-1873)

* 1871ko urtarrilean iritsi zen Madrilera Amadeo Savoiakoa, defendatzaile nagusia izan zuen Prim jenerala atentatuan hil ondoren. Hala ere, Amadeo Savoiakoaren monarkia demokratikoak porrot egin zuen:

- Ezin izan zion aurre egin erregimenaren kontrako oposizio gero eta indartsuagoari.
- Ezegonkortasun politiko eta soziala izan ziren nagusi.
- Gizarteko sektore gehienak kontra izan zituen.

* Alderdi batzuen barne zatiketak areagotu egin ziren:

- Alderdi progresista:
  - Bi talde eratu ziren: - Moderatuak, Práxedes Mateo Sagastarekin.
    - Erradikalak; Ruiz Zorrillarekin.
  - Gobernu iraultzailean bi buruzagi horiek txandakatu ziren.
- Errepublikarrak:
  - Bi talde eratu ziren: - Proiektu unitarioaren aldekoak.
    - Federalismoaren aldekoak, Pi i Margall buru zutela.
  - Sektore gogorrenek erregimena indarrez suntsitzea proposatu zuten; Pi i Margallek, aldiz, nahiago zuen bide politikoa.

* Egonezinak zirela eta gizarte sektoreak talde desberdinen inguruan biltzen hasi ziren:

- Lurjabe handiak:
  - Antonio Cánovas del Castilloren zuzendaritzapean elkartu ziren alderdi alfontsinoan.
  - Isabel II.aren semea zen Alfontsoren eskutik ordena eta moderantismoa berrezartzeko eskatu zuten.
- Elizako hierarkiaren zati handi bat:
  - Karlisten alde jarri zen.
  - Gurtzaren askatasuna eta eliza estatutik bereiztearen aurka borrokatu ziren.
  - Karlistek, 1872an, armak hartu eta Hirugarren Gerra Karlista pitzarazi zuten.

- Langileak:

  - Ideologia sozialista eta anarkistaren (jabetza pribatuaren abolizioa) inguruan biltzen ziren.
  - Aurrekoen kontrako muturrean zeuden.
  - Une honetan langileen mugimenduaren hedapenean ziharduten buru-belarri, elkartzeko askatasuna eta LNEaren bilerei esker.
  - Gobernu demokratikoa geroz eta kezkatuago zegoen talde hauen ekintzekin.

## 3.5. LEHENENGO ERREPUBLIKA (1873-1874)

### 3.5.1. Errepublika federala

* 1873ko otsailean Amadeo Savoiakoak abdikatu egin behar izan zuen:

- Zituen arazo politiko eta sozialak zirela eta.
- Bere erregetzak zuen oposizio gogorraren aurrean.

* Hurrengo hauteskundeetan abstentzioa izan zen nagusi, baina hala ere errepublikarrek irabazi zuten. Hala, ekainean errepublika federala aldarrikatu zen:

- Pi i Margall izendatu zuten lehendakari.
- Errepublikarrak zatitu egin ziren:
  - Kontserbadoreak, Castelarrek zuzenduta.
  - Zentristak, Pi I Margallek zuzenduta.
  - Sozialismotik hurbil zegoen sektorea, José María Orensek zuzenduta estatu subiranoen konfederazioa eskatzen zuena.

* Pi i Margall lehendakari zela aurkeztu zen 1873ko konstituzio federalaren proiektua, honako printzipioak jasotzen zituena:

- Subiranotasunaren jatorri herrikoia.
- Botere banaketa.
- Eskubideen deklarazioa.
- Federalismoa.
- Eliza eta estatuaren arteko banaketa. Estatuak ez zuen eliza gehiago finantzatuko.
- Probintziei gobernatzeko autonomia handia emango zien deszentralizazio politiko eta administratiboa.

* Hala eta guztiz ere, Pi i Margallek dimititu egin behar izan zuen zeuden arazo larriak zirela eta:

- Errepublikarren arteko zatiketak gero eta handiagoak ziren. Estremistenak, kantoi libre eta subiranoak elkartzean sortutako federazioaren aldekoak, Andaluzia eta Levanteko hainbat herritara hedatu zuten kantonalismoaren mugimendua



- Alcoi eta Bartzelonan langile anarkistek greba orokorrak egin zituzten lan baldintza hobeak eskatzeko.
- Hego Euskal Herrian, Katalunian eta Castellon Hirugarren Gerra Karlista hedatu zen.

### 3.5.2. Errepublika unitarioa

* 1873ko uztailean, Nicolás Salmerón izendatu zuten lehendakari. Horrek bi arazori egin behar izan zion aurre, besteak beste guardia zibila eta armadaren laguntzaz:

- Fronte karlistak aurrera egitea. Aurre egiteko soldadu gehiago erreklutatu behar izan zituzten.
- Kantonalismoaren hedapena. Horren aurka:
  - Kantonalismoaren alde zeuden agintariak bota egin behar izan zituzten.
  - 1873ko uztaila eta iraila bitartean, Pavia eta Martínez Campos jeneralek Andaluzia eta Levanteko erresistentzia kantonalista zapaltzea lortu zuten, baina Cartagenako kantoiak 1874ko urtarrila arte iraun zuen.

* 1873ko irailean, Emilio Castelar izendatu zuten gobernuburu:

- Errepublikaren sektore kontserbadoreena ordezkatzen zuen, eta errepublika unitarioa ezarri zuen.
- Kantonalismoa indarrez deuseztatu zuen, Espainiako batasuna arriskuan jartzen zuelako.
- Ordena publikoaren berrezarpena eta gizarteko altxamenduen amaiera nahi zuten indarrak batu zituen eta politika errepresibo gogorra egin zuen. Askatasunak asko mugatu zituen.
- Vatikanoranzko hurbilketa hasi zuen.

* Federalistak, kantonalistak, anarkistak, sozialistak... eskuinerako aldaketa horren aurka agertu ziren. Hori aprobetxatuz, 1874ko urtarrilean Manuel Pavia jeneralak estatu kolpea jo zuen:

- Urtarrilaren 2an kongresuak egindako bileran Castelar gobernutik bota zuten.
- Errepublika federala ezartzea eztabaidatzen ari zirela, Pavia hainbat guardia zibilekin indarrez sartu zen eta gorteak desegin zituen.
- Bien bitartean, aldeko indarrak Madril hartzen ari ziren.

* Paviaren estatu kolpearen ondoren, Serrano jenerala izan zen gobernuburu eta ezohiko botereak izan zituen. 1874 urterako:

- Teoria errepublikarrak bizirik zirauen arren, horren gainbehera begien bistakoa zen.
- Errepublikaren esperientzia okerraren ondoren gizarteko sektore asko Alfontsoren alde jarri zen.

* 1874ko abenduan, martinez Campos jenerala eta beste militar batzuk altxatu egin ziren eta Alfontso Borbongoa izendatu zuten Espainiako errege. Hala:

- 1868an hasi zen ziklo iraultzailea amaitu zen.
- Errestaurazioaren garaia hasi zen.

## 4. HIRUGARREN GERRA KARLISTA (1872-1876)

### 4.1. GERRAREN ARRAZOIAK

* Isabel II.aren erregealdian foru sistema errespetatu zen estatu katolikoaren barnean. Iraultzaile demokratiko antiklerikalak gobernura iritsi zirenean, estatu laikoa ezarri zuten. Hego Euskal Herrian, bertako herritarren sentimendu erlijioso sakonaren kontrako ekintzatzat hartu zen hori.

* Katolizismoaren defentsak, eta ez foruenak —azken horiek errespetatu baitzituzten iraultzaileek—, ekarri zuen alderdi karlista sendotzea eta Hirugarren Gerra Karlistaren hasiera —bigarrenak Hego Euskal Herrian ez zuen eraginik izan—.

* Karlismoak euskal gizarteko sektore ugariren babesa izan zuen:

- Talde pribilegiatu foruzaleena: seiurteko demokratikoa garatuz joan zen heinean, gehiago hurbildu ziren karlismora eta tradizionalismora, foruak mantentzeak euskal lurraldeetan ematen zien autoritatea arriskuan ikusten baitzuten.
- Behe eta erdi mailako nekazariek, hirietako langile batzuek eta aberats eta lurjabe handiek ere karlismoaren alde egin zuten:

  - Karlistek prentsan eta elizak pulpitu eta aitorlekuetan egindako propaganda politiko trebeari esker, liberalismoa katolizismoaren eta foruen aurka zegoela pentsatu zuten.
  - Karlos II.aren monarkiaren berrezarpenak gizarte tradizionalaren oinarriak eta eta ordena mantentzeko aukera eskainiko zuela pentsatzen zuten:

    - Euskal Herrian nagusi zen katolizismoa mantentzea.
    - XIX. mendean zehar hainbeste aldaketa jasan zituzten foruen pribilegioak mantentzea.

* *Jainkoa, Aberria, Foruak eta Erregea* printzipioetan oinarrituta, karlistak parlamentuan erasotzetik (iraultzaren lehen urteetan), eraso militarrak burutzera igaro ziren, Karlos María Isidro infantearen biloba, Karlos VII.a, errege izango zuen erregimen monarkikoa berrezartzeko asmoz.



### 4.2. GERRAREN GARAPENA

#### 4.2.1. Gerraren hasiera

* Hirugarren Gerra Karlista 1872ko apirilean hasi zen, Karlos VII.ak Espainiako koroa eskuratzeko zuen eskubidea aldarrikatu zuenean.

* Euskal Herrian, partida karlistek Serrano jeneralak zuzendutako armada errepublikarrari aurre egin behar izan zioten:

- Arrigorriaga, Mañaria eta Oñatiko bataletan karlistek galdu egin zuten.
- Orokietako batailaren ondoren, maiatzaren 24an sueten labur bat sinatu zen Zornotzan, eta bertan Serrano jeneralak amnistia emateko konpromisoa hartu zuen Euskal Herriko karlistek armak uzten bazituzten.
- Handik gutxira, karlistek —Santa Kruz apaiza izan zen pertsonaiarik nabarmenetarikoa— gerrari ekin zioten.

#### 4.2.2. Karlisten nagusitasuna

* 1873ko urtarrilean:

- Karlistek Araba, Bizkaia, Gipuzkoa,Nafarroa eta Katalunian erasoa jo zuten gerrillen taktikaren bidez, eta trenbideak, telegrafoak... saboteatu zituzten. Euskal lurraldeak karlisten esku geratu ziren, hiriburuak izan ezik.
- Une berean, gorteek Errepublika aldarrikatu zuten eta Karlos VII.aren jarraitzaileei buitzada ideologikoa eman zieten.

* Hurrengo hilabeteetan:

- Karlistek armada errepublikarra menderatu zuten Metauten, Beramendi eta Deikazteluko batailetan.
- Azaroan, errepublikarrek galdu egin zuten Jurramendiko batailan, Dorregaray, Valdespina, Velasko eta Ollo jeneral karlisten aurrean.
- Oraingoan ere, karlistek ezin izan zituzten hiriburuak hartu eta horiek iraultzaileen menpe jarraitu zuten: 1874an 125 egunez Bilbo eraso ondoren, karlistek atzera egin behar izan zuten.

#### 4.2.3. Gerraren amaiera

* Borroka militarrek 1876 arte iraun zuten; hala ere, Alfontso XII.a agertu zenean politikan, karlistekin bat egin zuten errepublikarren kontrakoek eta liberal foruzale kontserbadore askok utzi egin zioten Karlos VII.aren alde egiteari:

- 1875ean, liberalek armada karlista menderatzea lortu zuten Katalunian eta Maestrazgoan (Castello).

- 1876an, otsailean, Lizarra erori ondoren, liberalek behin betiko garaipena lortu zuten eta Karlos VII.ak Frantziara ihes egin behar izan zuen.

* Karlistek gerra galdu ondoren, Cánovasen gobernuak foruak ofizialki abolitu zituen 1876an, eta Euskal Herriko historian etapa berri bati eman zitzaion hasiera.

# 6. GAIA
# INDUSTRIALIZAZIO PROZESUA ETA GIZARTEAN IZAN ZUEN ERAGINA

1. EZAUGARRI NAGUSIAK
2. HAZKUNDE EKONOMIKOA ERRESTAURAZIOAN

    2.1. Sarrera
    2.2. Nekazaritza jarduerak
    2.3. Industri garapena eta lurraldeen arteko desoreka
    2.4. Industrializazioa Euskal Herrian

        2.4.1. Sarrera
        2.4.2. Bizkaian

            2.4.2.1. Meatzaritza
            2.4.2.2. Siderurgia
            2.4.2.3. Ontzigintza
            2.4.2.4. Industria elektrikoa
            2.4.2.5. Kontzentrazio finantzarioa

        2.4.3. Gipuzkoako industrializazioaren aniztasuna
        2.4.4. Gainerako euskal eskualdeak

    2.5. Komunikabideak eta banku antolamendua

        2.5.1. Komunikabideak
        2.5.2. Banku antolamendua

3. HAZKUNDE DEMOGRAFIKOA

    3.1. Bilakaera demografikoa Espainian
    3.2. Iraultza demografikoa Euskal Herrian

        3.2.1. Ezaugarri orokorrak
        3.2.2. Hazkundearen faktoreak

4. LANGILEEN MUGIMENDUA ESPAINIAN

    4.1. Sarrera
    4.2. Anarkismoa

        4.2.1. Ezaugarri ideologikoak
        4.2.2. Eboluzioa

    4.3. Sozialismoa

        4.3.1. Sorrera eta eboluzioa
        4.3.2. Ezaugarri ideologikoak
        4.3.3. Barne zatiketak
        4.3.4. Hego Euskal Herrian

5. GIZARTE EGITURA

    5.1. Sarrera
    5.2. Goi mailako klaseak
    5.3. Erdi mailako klaseak
    5.4. Langile klaseak

        5.4.1. Industriako langileak
        5.4.2. Nekazariak

## 1. EZAUGARRI NAGUSIAK

* Errestaurazioaren garaian ekonomi alorrean:

- Egonkortasun politikoak garapen ekonomikoa buiztatu zuen, eta bereziki Katalunian, Euskal Herrian eta Madrilen kokatu zen industriaren garapena.
- Nekazaritza produkzioak, aldiz, ez zuen hazkunde nabarmenik izan, artean gehiengoa bertatik bizi zen arren.

* Euskal herrian:

- Gerra Karlista amaitzean gertatu zen Bizkaia eta Gipuzkoako industri hazkundea:

  - Burdin mearen espiotazioan oinarrituz.
  - Produkzio siderurgikoan oinarrituz.

- Industri garapen horrek langileen kopurua areagotzea ekarri zuen, eta nekazaritza munduan zein hirietan bizi ziren langileen lan eta bizi baldintza kaskarrak zirela eta gatazkak sortzea. Langile horien aldarrikapenak hiru bidetatik egin ziren: sindikalismoa, alderdi politikoak eta, batzuetan, indarkeria.

## 2. HAZKUNDE EKONOMIKOA ERRESTAURAZIOAN

### 2.1. SARRERA

* Errestaurazioaren garaian Euskal Herrian eta Espainian garapen handia izan zen hainbat jarduera ekonomikotan.

* 1876. urtetik aurrera, Europan eragina izan zuen krisiari aurre egiteko, 1891n merkataritza protekzionismoa ezarri zen.

### 2.2. NEKAZARITZA JARDUERAK

* Nekazaritza sektore nagusia zen artean ekonomia espainiarrean: XIX. mendearen amaieran biztanleriaren % 64ak lehen sektorean egiten zuen lan.

* Nekazaritzaren inguruko arazo nagusiena jabetzaren egitura zen:

  Lursail handiak: hormalki nekazaritza ESTENTSIBOA

- Hegoaldean, lur gehiena lur jabe aristokrata eta burgesen esku zegoen: latifundioetan egituratuta.
- Zenbat eta iparralderago joan:

  - Orduan eta txikiagoak ziren jabetza horiek, minifundiora iritsi arte.

    Lursail txikiak: askotan nekazaritza INTENTSIBOA

  - Maizter eta lurjabe txikiek proletarizazio prozesua hasi zuten eta emigratu egin zuten.



Ez da garrantzitsua

* Produkzioa:

  - Zerealen produkzioak:

    - Behera egin zuen, atzerriko gaiek, merkeagoak izanik, konpetentzia egiten baitzioten.
    - Dena den, 80ko hamarkadatik aurrera gariaren produkzioa handitu egin zen.

  - Olioaren esportazioaren ondorioz (Amerikara batez ere), olibondoaren produkzioa handitu egin zen.
  - Fruta arbolen eta produktu ureztatuen landaketa nabarmen handitu zen Levanten eta hiri handien inguruetan.

### 2.3. INDUSTRI GARAPENA ETA LURRALDEEN ARTEKO DESOREKA

* Errestaurazioaren garaian, industri jarduera hiri inguruetan kontzentratzeko joera areagotu egin zen, batez ere Katalunian eta Euskal Herrian.

* Katalunian:

  - Ehungintzaren hedapenak aurrera jarraitu zuen, batez ere kotoia eta artilearenak.
  - Hala ere, kolonien galerak eragin handia izan zuen produkzio horretan.

* Madrilen industri kopuru handia bildu zen.

* Asturias eta Bizkaian:

  - Asturiasko industria siderurgikoak gainbehera izan zuen, Bizkaiak egin zion konpetentziaren ondorioz.
  - Produkzioaren lidergoa Bizkaiak hartu zuen eta Asturiaskoa harrikatz edo huilaren produkziora mugatu zen.

### 2.4. INDUSTRIALIZAZIOA EUSKAL HERRIAN

#### 2.4.1. Sarrera

* 1976tik aurrera, Gerra Karlista amaitu ondoren, Euskal Herriko (Bizkaiko, batez ere) industri hazkundea indartu egin zen, berrogeiko hamarkadan hasitako hazkundean oinarrituz.




## 2.4.2. Bizkaian

### 2.4.2.1. Meatzaritza

* Eboluzioa:

- 1876tik aurrera Somorrostroko burdinaren erauzketak eta Ingalaterrara zuzendutako esportazioek gora egin zuten eta Bizkaia mea horren estatuko ekoizle handiena bihurtu zen.
- 1900 urte arte ustiapen erritmoa handituz joan zen.
- XX. mendeko lehen hamarkadetan produkzioaren erritmoak behera egin zuen:
  - Meatzeak agortu egin zirelako.
  - Neurri protekzionistak ezarri zirelako.

* Meatzetako erauzketatik eta esportaziotik sortutako kapitalak Bizkaian hein handian industri iraultza finantzatzea ahalbideratu zuen.

### 2.4.2.2. Siderurgia

* Industriaren motorea izan zen eta Bizkaiak baldintza ezin hobeak eskaintzen zituen industria horren garapenerako:

- Bizkaiko hematitea.
- Ikatz asturiar eta ingelesa: Britainia Handira burdina eramaten zuten ontziek ikatza ekartzen zuten bueltan.
- Teknologia: Bessemer eta Siemens-Martin prozedurak altzairua elaboratzeko.
- Atzerriko zein bertako kapitala.
- Barne zein kanpo merkatua.

* Eboluzioa:

- 1879-92 artean:
  - Estatuko hiru siderurgia garrantzitsuenak eraiki ziren Bizkaian, oso teknologia aurreratuarekin:
    - *San Francisco de Mudela*, Francisco de las Rivasek.
    - *Vizcaya*, Víctor Chávarrik.
    - *Altos Hornos de Bilbao*, Ibarratarrek.
  - Industria horien produkzioak gora egin zuen etengabe, Bizkaiko burdina eta altzairua Europa osora esportatu ziren.
- 1894 urtean *Liga Vizcaina de Productores* sortu zen interes siderurgikoak sustatzeko:
  - 1897ko *Sindicato Siderurgicoaren* oinarria izan zen.



- Bizkaiko siderurgiak bildu zituen burdinaren eta altzairuaren barne merkatua monopolizatzeko.
- Prezioen igoerari esker etekinek gora egitea lortu zuten.

- 1902tik aurrera industri kontzentrazioaren prozesua hasi zen, *Altos Hornos de Vizcaya* (Bizkaiko Labe garaiak) sortu zirenean:
  - Bertan *Vizcaya*, *Iberia* eta *AHB* batu ziren.
  - Bilboko itsasadarrean eta Gipuzkoan industrializazioaren aniztasuna sustatu zuten.

### 2.4.2.3. Ontzigintza

* XIX. mendearen amaieran, Bilboko merkataritza ontzien hazkundea izan zen, eta horrek industria siderurgikoari mesede egin zion. Arrazoiak:

- Burdin mearen eta totxoaren esportazioa.
- Ikatzaren inportazioa.
- 1898an koloniak galtzean, kapitala herrira itzuli zen eta horrek untzigintzaren sektorea suspertu zuen.

* Bilboko meatzeetako eta siderurgiako burgesiako familia asko untzigintzan hasi ziren:

- Ontziolak egokitu zituzten lurrunaren bidez mugitzeko burdinazko ontziak eraikitzeko.
- Bilboko merkataritza untziteria eta Espainiako gerrauntziak berritu zituzten.
- Familia eta enpresa garrantzitsuenak hauek izan ziren:
  - Martinez Rivasen *Astilleros del Nervión*.
  - Sota eta Aznarren *Compañía Euskalduna*.
  - Sestaoko *Sociedad Española de Constucción Naval*.
  - Gandarias, Ibarra etab.en enpresak.

### 2.4.2.4. Industria elektrikoa

* Bilboko burgesiak sektore elektrikoa bultzatu zuen, Euskal Herrian eta Espainian.

* Urrats garrantzitsuenak:

EZ
- 1901ean *Hidroeléctrica Ibérica* fundatu zen, *Banco de Vizcaya*k finantzaturik.
- 1907an *Hidroeléctrica Española* enpresak Madrilera elektrizitatea eraman zuen linea elektrikoa eraiki zuen, eta Europako instalazio garrantzitsuena bihurtu zen.
- XX. mendeko lehen bi hamarkadetan *Banco de Vizcaya*k Espainian sortu ziren konpainia elektriko gehienetan parte hartu zuen.
- 1920ko hamarkadan, José Orbegozo donostiarrak *Saltos del Duero* enpresa zuzendu zuen, Tormes, Esla eta Duero ibaiak ustiatzeko.

#### 2.4.2.5. Kontzentrazio finantzarioa

* Bizkaian, XX. mendea hasi ondoren, hazkunde ekonomikoak sortutako giroak egitura finantzario baten osaketa ahaibideratu zuen, meatzeetako eta siderurgiako oligarkiatik iritsitako kapitalarekin.

* Hiru banku garrantzitsu sortu ziren: *Banco de Bilbao, Banco de Vizcaya* eta *Crédito de la Unión Minera.*

* Euskal Herriko kapital finantzarioa hedatu egin zen eta merkatu eta industria espainiarrean inbertitu zuen.

* Horrekin batera, enpresa negozioak ugaritu zituzten elkarte anonimo asko sortu zen.

### 2.4.3. Gipuzkoako industrializazioaren aniztasuna

* Bizkaiko industriaren kontzentrazioaren aurrean (Sestao, Barakaldo, Bilboko itsasadarra), Gipuzkoan industri instalazioak sakabanatuago zeuden, eta txikiak eta ertainak ziren.

* 1876an hasitako hedapenak garapen ekonomikoa azkartu zuen, 1898tik aurrera batez ere. Lurralde osoan industria metalurgikoa, ehungintza, papergintza, elikagaiak, arma fabrikak... ezarri ziren. Horren oinarriak hauek izan ziren:

  - Industria dibertsifikatzea.
  - XIX. mendeko industri hazkundea.
  - 1898tik aurrera koloniak galtzean, hango kapitala itzultzea.

* Sektoreak:

  - Papergintza:
    - 1880 eta 1890 artean krisia izan zuen.
    - XX. mendean berregituratu egin zen, *Papelera Española* sortu eta Tolosa eta Errenteriako zenbait industria bildu zirenean.
  - Metalurgia:
    - Garapen handiena Gipuzkoan izan zuen, zenbaitetan Bilboko inbertsioei esker.
    - Industria txiki asko hedatu ziren probintzian zehar, adib.: metala eraldatzen duen *CAF*, Eibarko arma industria...
  - Ontzioiak: Pasaia eta Zumaiakoek untzigintzaren gorakadan zerikusi handia izan zuten.



### 2.4.4. Gainerako euskal eskualdeak

* Industrializazioaren eragin urria izan zuten.

* Ezarri ziren industriak kontsumorako ondasun industria txikiak izan ziren, batez ere elikagaien industriak, oinetakoenak, altzarienak etab.

## 2.5. KOMUNIKABIDEAK ETA BANKU ANTOLAMENDUA

### 2.5.1. Komunikabideak

* Errestaurazioan:
  - Trenbide linea bikoiztu egin zen.
  - Lurraldeen arteko desoreka deuseztatzen saiatu ziren.
  - Merkatu nazionala egituratzen saiatu ziren.

* Trenbide asko eraiki ziren Espainiako ekialderantz eta baita salgaiak garraiatzeko trenbide estu asko ere.

* Euskal Herrian industrializazioarekin batera industri gune desberdinak lotuko zituen trenbide linea eraikitzen hasi ziren:
  - Bilbo-Portugalete: Tutera- Bilbo linearekin lotu zuten, Espainiako nagusienetarikoa baitzen.
  - Bilbo-Areeta-Plentzia.
  - *Ferrocarriles Vascongados*: Bilbo eta Donostia elkartzen zituen Zumarragatik.
  - Bilbo-Santander.

Bilboko industri oligarkiak linea horietan ekonomikoki parte hartu zuen, mearen esportazioa bermatzeko.

### 2.5.2. Banku antolamendua

* Espainiako banku sektorean kontzentrazio prozesu bat gertatu zen, Bizkaian gertatu zenarekin batera.

* Sortu ziren banku garrantzitsuenak *Banco Hispano Americano* (1900) eta *Banco Español de Crédito* (1902) izan ziren.

## 3. HAZKUNDE DEMOGRAFIKOA

### 3.1. BILAKAERA DEMOGRAFIKOA ESPAINIAN

* Errestaurazioaren garaian, biztanleriaren hazkundea nahiko txikia izan zen.

* Erregimen demografikoak aurrekoaren berdina izaten jarraitu zuen:

- Jaiotza tasa eta heriotza tasa handiak, Katalunian izan ezik.
- Bizi itxaropen txikia: 1900ean, 35 urtekoa.

* Biztanleriaren banaketa berria sortu zen: nekazaritza inguruneetako jendeak emigratu egin zuen hiriburu eta ingurune industrializatuetara.

### 3.2. IRAULTZA DEMOGRAFIKOA EUSKAL HERRIAN

#### 3.2.1. Ezaugarri orokorrak

* Araban eta Nafarroan biztanleria oso motel hazi zen; Gipuzkoan eta Bizkaian, alderantziz.

* Bizkaian XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, demografi aldaketa handiak gertatu ziren industrializazio eredua zela eta. Aldaketek bi oinarri izan zituzten:

- Meatzetako ustiapena.
- Geografikoki kontzentratuta zeuden industria handiak.

#### 3.2.2. Hazkundearen faktoreak

* Inmigrazioa:

- Gaztelako probintzietatik eskulan ugari iritsi zen eta horrek hazkunde demografiko handia eragin zuen Gipuzkoan eta batez ere Bizkaian.
- Euskal Herriko nekazaritza inguruetako langileek ere industri guneetan biltzeko joera izan zuten.

* Heriotza tasa:

- Iraultza demografikoaren hasieran (Bilboko itsasadarraren ezkerraldean, batez ere) handitu egin zen, ondoko arrazoiengatik:

  - Lan baldintza txarrak.
  - Elikadura txarra.
  - Higiene falta.
  - Pertsonak pilaturik bizitzea.

  } biriketako gaixotasun eta infekzioak

- XX. mendeko lehen hamarkadan, behera egin zuen. Arrazoiak:

  - Medikuntzaren garapena, osasun eta lan baldintza gogorrak hobetzeko lantegietatik hurbil ospitaleak eraiki ziren.
  - Kondizio higienikoen hobekuntza: mende bukaeran, hustubideen eta edateko uraren zerbitzuak hobetu egin ziren, eta uraren eta janariaren



bidez kutsatzen ziren gaixotasunak murriztu egin ziren: kolera, sukar tifoideak, disenteria...

* Jaiotza tasa:

- XX. mendearen lehen heren arte hazkundea izan zen:

  - Behe mailetan nabarmena:

    - Zelibatua eta ezkontzeko adina jaitsi egin ziren, kanpotik gizon asko etorri baitziren.
    - Gizarteak demografia espantsionista behar zuen industri garapenarekin jarraitzeko.

  - Burges dirudunen artean ez zen hazkunderik izan:

    - Eredu modernorako trantsizio demografikoa egin zuten: jaiotza tasa txikia / heriotza tasa txikia.
    - Oinarria antikontzeptiboen erabilera kontzientea izan zen.

- 1925etik aurrera behera egin zuen.

## 4. LANGILEEN MUGIMENDUA ESPAINIAN

### 4.1. SARRERA

* Langileen mugimendua Espainiako industri garapenarekin lotuta hazi zen.

* Errestaurazioaren garaian, langileen aldarrikapenak bi korronte nagusik bideratu zituzten: anarkismoak eta sozialismoak.

* Sagastaren 1881.eko gobernu liberalak sindikatuak onartu zituen eta langileen elkarteak legeztatu:

- Langileen elkarteen propaganda jarduera eta antolamendua areagotu egin ziren.
- Egunkariak, manifestuak, batzarrak, mitinak, grebak eta manifestazioak sortu ziren.

* Burgesia kontserbadorea eta enpresaburua:

- Izutu egin zen sindikalismoaren hazkundearen aurrean.
- Ordena eta euren interes ekonomikoak mehatxatzen zituela pentsatzen zuten ~~zituela pentsatzen zuten~~.

* Bi ideologia horiekin batera *sindikalismo kristaua* deitutakoa ere agertu zen.

## 4.2. ANARKISMOA

### 4.2.1. Ezaugarri ideologikoak

* Barne diziplinarik ez izatea.
* Hauteskundeetan parte hartzeari uko egitea, horietan iruzurrak besterik egiten ez zituztelako.
* Estatua eta beronen instituzioak abolitzea.
* Jabetza pribatua kentzea.
* Indarkeriaren defentsa.
* Greba orokorraren baliabidea erabiltzea.

### 4.2.2. Eboluzioa

* 1874an Langileen Nazioarteko Erakundearen (LNE) Espainiako sekzioa desegin ondoren:

  - Erakunde horretan parte hartzen zuten langileen elkarteek klandestinitatean lan egin behar izan zuten.
  - Errepresio gogorra jasan behar izan zuten poliziaren aldetik eta jazarpen horren ondorioz, atxiloketa ugari izan ziren.

* 1881ean Sagastaren gobernu liberalak Federacion de Trabajadores de la Region Española (FTRE) sortzea onartu zuen:

  - Une horretan anarkismoa zen mugimendu sindikalisten protagonista.
  - Horren atomizazioak, ordea, lan munduko aldarrikapenetan protagonismorik ez izatea ekarri zuen eta, anarkismoaren joera erradikalenek terrorismoaren bidea jorratu zuten:

    - Andaluziako jornalariek edo *Mano Negra* erakundeek 1874 eta 1883 artean bortxakeriako ekintzak egin zituzten.
    - Ekintza horiek eta latifundisten beldurrek errepresio gogorrera bultzatu zuten gobernua eta, ondorioz, Federazioa desegin zuen.

* 1901etik 1919ra:

  - 1901ean zenbait talde anarkistak Katalunian *Solidaridad Obrera* egunkaria argitaratu zuen:

    - Izen bereko elkarte batek babestu zuen 1907an.
    - Elkarte hori Bartzelonako 1909ko *Aste Tragikoan* gertatutako gatazken protagonista izan zen.

  - 1910ean egindako kongresu anarkosindikalistaren ondoren, 1911n Lanaren Konfederakuntza Naziona (CNT) osatu zen legaiki:

    - 1917ko greban parte hartu zuen.



  - Afiliatu gehienak eta eragin handiena izan zuen:

    - Zonalde garrantzitsuenak:

      - Mediterraneo ingurua, Levante eta Bartzelonako industriguneekin.
      - Zaragoza eta Andaluziako latifundioetan.
      - Hego Euskal Herrian: Gasteizen, Bilboko itsasadarrean eta Errenteria-Donostia inguruan.

    - Anarkismorantz jo zuten sektoreak nekazariak eta gaitu gabeko langileak izan ziren.

  - 1917tik 1919 aldera gizarte tentsioa areagotu egin zen:

    - *Mano Negrak* Andaluzia inguruan ekintza ugari burutu zituen.
    - Kataluniako ehungintza sektorean anarkisten ekintza bortitzak gogortu egin ziren.
    - Gobernuak gogor zapaldu zituen mugimenduak eta, ondorioz, gizarte gatazkak areagotu eta, meategi eta iparraldeko industrietan grebak deitu ziren.

* 1919tik aurrera:

  - 1923 bitarte egoera terrorista larria bizi izan zen Bartzelonan anarkistek nagusi burgesen kontra egindako indarkeriazko ekintzak zirela eta.

  - Primo de Riveraren diktaduran:

    - Anarkismoa gogor jazarri zuten eta afiliatuak asko jaitsi ziren.
    - Gobernuaren zapalkuntzak sektore erradikal baten zatiketa ekarri zuen 1927 urtean, Federazio Anarkista Iberiarra (FAI).

## 4.3. SOZIALISMOA

### 4.3.1. Sorrera eta eboluzioa

* Langileen mugimenduaren korronte marxista inprentako langile muitzo baten inguruan antolatu zen Madrilen 1879an:

  - Langile horien artean Pablo Iglesias eta Jaime Vera zeuden.
  - Marx eta Engelsen jarraitzaileak ziren.
  - Alderdi Demokratiko Sozialista Langile Espainiarra zen.

* Elkarteen legea emateak aldaketa batzuek ekarri zituen:

  - 1887an, legearekin, hasierako elkarte hura Alderdi Sozialista Langile Espainiarra bilakatu zen.

SOZIALISMOA (ESP)

ALDERDI POL. — PSOE

SINDIKATUA — UGT

- 1888an Alderdi Sozialistan oinarrituz, Langileen Batasun Orokorra (UGT) sortu zen, Madril, Katalunia eta Hego Euskal Herriko langileen artean oso harrera ona izan zuena.

* PSOE eta UGT erakundeetako afiliazioa oso motela izan zen eta bere idazkari nagusiak, Pablo Iglesiasek, ez zuen diputatu akta 1910. urte arte lortu.

* 1925a arte Pablo Iglesias izan zen alderdiko eta sindikatuko burua. Alderdiko aldizkari ofiziala *El Socialista* izan zen.

#### 4.3.2. Ezaugarri ideologikoak

* Langileen erabateko emantzipazioa, klase horrek botere politikoa eskuratzeko aukera izan zezan

* Anarkisten indarkeria baztertzea langileen askatasuna lortzeko bide gisa:

  - PSOEren ustez beharrezkoa zen modu baketsuan eta legearen barnean antolatzea, joko politikoan eta hauteskundeetan parte hartuz, langile klasearen aurrean propaganda egiteko eta, une egokia iristean, iraultzaren bitartez boterea eskuratzeko.
  - UGT sindikatua, halaber, burgesiarekin negoziatzen hasi zen langileen bizi baldintzak hobetzeko.
  - Hala, sozialistak anarkosindikalistak baino jarrera moderatuagoak eta adiskidetsuagoak erakutsi zituzten. Horrenbestez, ideiei, helburuei eta baliabideei zegokienez, langile anarkisten eta sozialisten elkarteen arteko harremanak oso txarrak izan ziren.

* Gerren eta hedapen kolonialen kontrako jarrera.

#### 4.3.3. Barne zatiketak

* PSOE alderdiak Hirugarren Internazionalarekin (marxista leninista, 1920) bat ez egitea erabaki zuen. Ondorioz:

  - Hogeiko hamarkadaren hasieran, burukide eta militante sozialista garrantzitsu batzuek alderdia utzi zuten.
  - Disidentzia horrekin Espainiako Alderdi Komunista sortu zen.

* Sektore sozial demokrata bat sortu zen Alderdi Sozialistaren barnean:

  - Indalecio Prieto zuen buru.
  - UGTko idazkari nagusi zen Francisco Largo Caballerok zuzendutako gehiengoaren joerarekin aurrez aurre zegoen.
  - Arazoak ugaritu zituen sozialisten artean.



#### 4.3.4. Hego Euskal Herrian

* Bizkaiko langileen nahiak sozialismoaren bitartez bideratu ziren.
* Buruzagi garrantzitsuenak F. Perezagua eta Indalencio Prieto (1914tik aurrera) izan ziren.
* Ekintza garrantzitsuenak 1890etik 1910 arte meatzariek egindako geldialdiak izan ziren.
* Primo de Riveraren diktaduraren garaian UGT sindikatuak Hego Euskal Herriko eta Espainiako sindikalismoa monopolizatu zituen.

### 4.4. SINDIKALISMO KRISTAUA

* Elizaren ingurukoek langileen arteko lankidetza bultzatzeko elkarteak sustatu zituzten. Nahiago izan zuten hori langileen aldarrikapenak sustatu baino.

* Gaztela-Leonen, adibidez:

  - Vicent aitaren nekazaritza sindikalismoa nabarmendu zen.
  - Caja Rural kutxak eta nekazaritza kredituetarako erakundeak sortzeari esker ezarri zen sindikalismo mota hori.

* Hego Euskal Herrian:

  - 1911n izaera katolikoa zuen lehen sindikatu nazionalista euskalduna eratu zen: *Solidaridad de Obreros Vascos* (SOV), aurrerago *Eusko Langileen Alkartasuna* (ELA) izango zena.
  - SOV eta sindikatu katolikoak elkartu egin ziren 1928an Primo de Riveraren diktadurari aurre egiteko.

## 5. GIZARTE EGITURA

### 5.1. SARRERA

* Espainiako gizarteak Errestaurazioaren garaian oso egitura polarizatua izan zuen, hirian zein landan:

  - Gobernuan zeuden taldeek botere politikoa eta ekonomikoa zuten.
  - Gizarteko gehiengoa nekazaritzako langile klaseak eta hirien inguruan sortutako industrializazioaren babesean zeuden industri langileek osatzen zuten.
  - Erdi mailako klaseen ahultasunak gizarteko mugimenduak zeharo saihesten zituen.

* Euskal Herrian, eta Bizkaian zehazki:

  - Industrializazio prozesuak eta hazkunde demografikoak aldaketa handiak sortu zituzten gizartean.
  - Industriako langileen eta nekazarien bizi baldintza eskasen ondorioz, gizarteko tentsioa areagotu egin zen eta greben bidez, aldarrikapen ekintzen bidez eta indarkeriaren bidez adierazi zuten tentsio hori.

## 5.2. GOI MAILAKO KLASEAK

* Botere politikoa eta ekonomikoa biltzen zuen gizarteko elitea zen eta ondorengoek osatzen zuten:

  - Lurjabe handiek, lursail handiak zituztenak bereziki. Horiek latifundioan oinarritutako botere ekonomikoa zuten artean.
  - Kostaldeko goi mailako burgesia industrial eta finantzarioa, gizartean geroz eta pisu handiagoa zuena.

* Euskal Herrian:

  - Bizkaian kokatzen zen eta talde minoritarioa zen, familia burges gutxi batzuek osatua: Ibarra, Obieta, Villalonga, Artetxe...
  - Industria eta finantza erakunde garrantzitsuak zituzten. Dipútazioak kontrolatzen dute
  - Euskal Herriko botere politikoa monopolizatzen zuten.
  - Aukera politiko espainolista zuten eta txandakatzearen barruan agintean zegoen alderdiaren alde agertzen ziren (liberala, kontserbadorea).

## 5.3. ERDI MAILAKO KLASEAK

* Ondorengo ezaugarriak zituzten:

  - Minoritarioak ziren biztanleriarekiko eta mugimendu asko gertatu ziren horien baitan.
  - Iraultzari beldur handia zioten.
  - Lanbide liberaletakoek, merkatari txikiek eta nekazaritza inguruetako erdi mailako lurjabeek osatzen zuten.
  - Kultur maila handiagoa zutenez gero, talde desberdina osatzen zutela ohartu ziren, eta bizitza politikoan parte hartzen hasi ziren goi mailako burgesiarekin batera.

* Euskal Herrian:

  - Behe eta erdi mailako burgesiak ez zuen ia botere politiko eta ekonomikorik, eta horregatik goi mailako burgesiarekin aurrez aurre zegoen, horrek monopolizaturik baitzuen boterea.
  - Kanpotik iritsitako langileekin ere ez zetorren bat, horiek ez baitzituzten ideia nazionalistak defendatzen.

## 5.4. LANGILE KLASEAK

### 5.4.1. Industriako langileak

* Gero eta gehiago ziren eta bizi baldintza txarrak hobetu nahi zituzten hainbat bidetatik: elkarteak sortuz, grebak eginez, indarkeria erabiliz.



* Hauek dira langileen kokagune esanguratsuenak:

  - Asturiasen, meatzariak.
  - Euskal Herrian, Bizkaian, batez ere, eta Gipuzkoan, metalurgiako langileak.
  - Katalunian, langileak.

* Talde horiek bi arrazoirengatik hartu zuten klase kontzientzia:

  - Bizi maila txarra.
  - Arazo ekonomikoak, horien artean garrantzitsuenak:
    - Lehen mailako produktuen prezioen igoera.
    - Etxebizitzen alokairuaren gehiegizko igoera.
    - Soldata txikiak.
    - Emakume eta haurren eskulana: oso soldata txikiak eta esplotazio erregimenean lan egin beharra.

* Estatuak oso berandu hartu zuen langile horien egoera txarraren kontzientzia, eta lehen erreformak, estatuaren ardura erakusten zutenak, oso berandu izan ziren:

  - 1900: Lan istripu eta emakume eta haurren lanari buruzko lehen legeak.
  - 1914: Laneguna bederatzi ordura jaitsi zuten (ordu arte hamar edo hamaikakoa zen).

* Euskal Herrian:

  - Gaitu gabeko langile gehienak kanpotarrak ziren eta behe eta erdi mailako burgesiak baztertu egin zituen tradizio arrotzak ekarri zituztelako.
  - Euren arazoak kontutan izan zituen dotrinara afiliatu ziren: sozialismoa.

### 5.4.2. Nekazariak

* Gizarteko arazo nagusia ziren, zeuzkaten ezaugarriak zirela eta:

  - Lurraren banaketa desorekatuaren ondorioz, jornalari gehiegi zegoen.
  - Biztanleria aktiboaren % 70a ziren.
  - Oso diru sarrera txikiak zituzten:
    - Lurjabe txikiek besterik ez zuten bizitzeko adina irabazten.
    - Euren aurrekontuetan gaixotasunaren ondorioz sortutako gastuak ez ziren sartzen.

  - Maizter eta kolonoak oso egoera txarrean zeuden zenbait faktoreren menpe egoteagatik:
    - Lurren emankortasuna.
    - Nekazaritza lanetarako makineria edukitzea.
    - Ongarrien ordainketa.

- Euren uzta txikiak merkatua monopolizaturik zutenei saltzea.

- Jornalarien kasua are okerragoa zen:

- Euren soldata ez zen nahikoa familia mantentzeko.
- Lanik gabe egoten ziren denboraldiak oso luzeak ziren.

* Espainian, arazo horien aurrean nekazarien jokabidea ondorengoa izan zen:

- Normalki ez zuen gizarte gatazkarik sortu, mende luzetan zehar otzantasunez jokatu baitzuten baldintza txarren eta jauntxokeriaren aurrean.
- Egoera puntual batzuetan hala ere, gatazka batzuk izan ziren:

- Andaluziako *Mano Negra* taldearen terrorismo anarkista.
- 1878 eta 1879 artean Valentzian izandako gatazkak.
- 1900 eta 1901 artean izandako altxamenduak.